

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

123/2022 Foru Agindua, martxoaren 2koa, zeinaren bidez bi eredu hauek onesten baitira: 217 eredua, higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatutako dibidenduen eta mozkin partaidetzen gaineko karga berezia autolikidatzekoa, eta 237 eredua, higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatu gabeko mozkin gaineko karga berezia autolikidatzekoa.

Urriaren 26ko 11/2009 Legeak, Higiezin Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuak arautzen dituenak (aurrerantzean, 11/2009 Legea), beharrezko esparru juridikoa ezarri zuen, baita zerga araubide berezia ere, higiezin merkatuan inbertitzen duten sozietate anonimo kotizatu deiturikoentzat (Socimi aurrerantzean), zeinek higiezin merkatura eta, zehatzago, alokairuaren merkatura bideratutako inbertsio tresna bat eratzten baitute.

Socimi sozietateek hiri izaerako aktibo higiezinetan inbertitzea dute jarduera nagusi, zuzenean edo zeharka inbertitzea, horiek alokairuan jartzeko, eta higiezin horien barruan sartzen dira etxebizitzak, merkataritza-lokalak, egoitzak, hotelak, garaieak edo bulegoak, besteak beste. Zeharkako inbertsioa onartze aldera, Socimiek parte hartu dezakete bai beste Socimi batzuetan eta bai, inbertsioari eta mozkin banaketari dagokienez, baldintza berberak betetzen dituzten entitateetan ere, egoitza Espainiako lurraldean eduki edo ez, eta merkatu arautuetan kotizatu edo ez.

Aipatutako legearen 9. artikuluko 2. apartatuak dio Socimi sozietateek ehuneko 19ko karga berezia izango dutela entitatearen kapital sozialean ehuneko 5eko edo hortik gorako partaidetza duten bazkideei banatutako dibidenduen edo mozkin partaidetzen zenbateko osoaren gainean, baldin eta dibidendu horiek, bazkideei dagokienez, salbuetsita badaude edo ehuneko 10etik beherako karga tasaz zergapetzen badira.

Karga hori sozietateen gaineko zergaren kuotatzat hartuko da, eta ez da aplikatuko dibidendua jasotzen duen bazkidea 11/2009 Legea aplikagarri duen entitate bat denean.

Lege horren 9.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, karga hori ez da aplikagarria izango dibidenduak edo mozkin partaidetzak lege bereko 2.1.b) artikuluan aipatutako entitate ez-egoiliarrek jasotzen dituztenean, haien kapital sozialean ehuneko 5eko edo hortik gorako partaidetza duten eta dibidendu edo mozkin partaidetza horiengatik gutxienez ehuneko 10eko karga tasaren arabera tributatzan duten bazkideei dagokienez.

Horrela, 11/2009 Legearen 9.3 artikuluko lege horren 2.1.b) artikuluko entitate ez-egoiliarrek aipatzen dituztenean, hizpidera ekartzen ari da, baita ere, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren, Socimien xede sozial bera duten eta, legean edo estatutuetan mozkinak banatzeko zehaztutako nahitaezko politikari dagokienez, Socimientzat ezarritakoa bezalako araubide baten mende dauden entitateak.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Orden Foral 123/2022, de 2 de marzo, por la que se aprueban los modelos 217 de autoliquidación del gravamen especial sobre dividendos o participaciones en beneficios distribuidos por sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario, y 237 de autoliquidación del gravamen especial sobre beneficios no distribuidos por sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario.

La Ley 11/2009, de 26 de octubre, por la que se regulan las Sociedades Anónimas Cotizadas de Inversión en el Mercado Inmobiliario (en adelante Ley 11/2009), establece el marco jurídico necesario y un régimen fiscal especial para las denominadas sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario (en adelante Socimi), sociedades que configuran un instrumento de inversión destinado al mercado inmobiliario y, más en concreto, al mercado del alquiler.

Las Socimi son sociedades cuya actividad principal es la inversión, directa o indirecta, en activos inmobiliarios de naturaleza urbana para su alquiler, incluyendo tanto viviendas, como locales comerciales, residencias, hoteles, garajes u oficinas, entre otros. Con el objeto de admitir la inversión indirecta, se permite que las Socimi participen en otras Socimi o bien en entidades que cumplan los mismos requisitos de inversión y de distribución de beneficios exigidos para aquellas, residentes o no en territorio español, coticen o no en mercados regulados.

El apartado 2 del artículo 9 de la citada ley establece que la Socimi estará sometida a un gravamen especial del 19 por ciento sobre el importe íntegro de los dividendos o participaciones en beneficios distribuidos a los socios cuya participación en el capital social de la entidad sea igual o superior al 5 por ciento, cuando dichos dividendos, en sede de sus socios, estén exentos o tributen a un tipo de gravamen inferior al 10 por ciento.

Dicho gravamen tendrá la consideración de cuota del impuesto sobre sociedades y no resultará de aplicación cuando el socio que percibe el dividendo sea una entidad a la que resulte de aplicación la Ley 11/2009.

De acuerdo con lo establecido en su artículo 9.3, este gravamen no resultará de aplicación cuando los dividendos o participaciones en beneficios sean percibidos por entidades no residentes a las que se refiere el artículo 2.1.b) de la misma ley, respecto de aquellos socios que posean una participación igual o superior al 5 por ciento en el capital social de aquellas y tributen por dichos dividendos o participaciones en beneficios, al menos, al tipo de gravamen del 10 por ciento.

De esta manera, cuando el artículo 9.3 de la Ley 11/2009 se refiere a las entidades no residentes del artículo 2.1.b) de la citada ley, está aludiendo a entidades no residentes en territorio español que tengan el mismo objeto social que las Socimi y que estén sometidas a un régimen similar al establecido para las Socimi en cuanto a la política obligatoria, legal o estatutaria, de distribución de beneficios.

Era berean, 11/2009 Legearen 9. artikuluko 4. apartatuak ezartzen du Socimi sozietateei karga berezi bat aplikatuko zaiela banaketarik izan ez duen ekitaldian lortutako mozkinen gainean, sozietateen gaineko zergaren karga tasa orokorraren arabera tributatu ez duten errentetatik datorren zatian, baldin eta aipatutako legearen 6. artikuluko 1. apartatuaren b) letran araututako berrinbertsio aldiari atxikitako errentak ez badira. Karga hori sozietateen gaineko zergaren kuotatzat hartuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 15. artikuluan ezartzen duenez, 10 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena duten subjektu pasiboek, zerga egoitza edozein tokitan dutela ere, foru aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazioei ordaindu dizkiete zergak, ekitaldian zehar lurralde bakoitzean egin dako eragiketa bolumenaren proportzioan.

Bestalde, Ekonomia Itunaren 18. artikulua xedatzen du ezen zergak bi administrazioetan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek behar diren aitorten-likidazioak aurkeztu behar dizkietela administrazio biei, arauetan agindutako epeak eta formalitateak errespetatuta. Aitorten-likidazio horietan, administrazio bakoitzari aplikatu beharreko proportzioa eta dagozkion kuotak eta itzulketak zein diren zehaztu beharko da beti.

Horren ondorioz, foru agindu honen xedea da onestea, alde batetik, 217 eredu, lurralde erkideko araudiaren pean dauden Socimi sozietateek banatutako dibidenduei edo mozkin partaidetzei aplikatzen zaien karga berezia autolikidatzekoa, eta, bestetik, 237 eredu, sozietate horiek banatu gabeko mozkinen gaineko karga berezia autolikidatzekoa. Eredu biak Gipuzkoako foru eremuan erabiliko dira, gorago adierazi diren obligazioak betetzeko.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 217 eta 237 ereduak onestea.

1. Onetsita geratzen da 217 eredu, «Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatutako dibidenden eta mozkin partaidetzen gaineko karga berezia. Sozietateen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko (aurrerantzean, 217 eredu), foru agindu honen I. eranskin gisa jasotzen dena.

2. Onetsita geratzen da 237 eredu, «Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatu gabeko mozkinen gaineko karga berezia. Sozietateen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko (aurrerantzean, 237 eredu), foru agindu honen II. eranskin gisa jasotzen dena.

2. artikulua. 217 eredu aurkeztera behartuak.

1. 217 eredu aurkeztera eta dagokion zenbatekoa ordaintzera behartuta daude Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuei buruzko urriaren 26ko 11/2009 Legean aurreikusitako zerga araubidea aplikatzea aukeratzeko errentateak, baldin eta, sozietateen gaineko zergari lotuta egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Administrazioari tributatu behar badiote maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak 15. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. 217 eredu ez da aurkeztu beharko kasu hauetan:

a) Dibidendua jasotzen duen bazkidea 11/2009 Legea aplikagarri duen entitate bat denean.

b) Dibidenduak edo mozkin partaidetzak 11/2009 Legearen 2.1.b) artikuluan aipatutako entitate ezek jasotzen dituztenean, haien kapital sozialean ehuneko 5eko edo hortik gorako partaidetza duten eta dibidendu edo mozkin partaidetza horien

Asimismo, el apartado 4 del citado artículo 9 de la Ley 11/2009, establece que la Socimi estará sometida a un gravamen especial sobre el importe de los beneficios obtenidos en el ejercicio que no sea objeto de distribución, en la parte que proceda de rentas que no hayan tributado al tipo general de gravamen del impuesto sobre sociedades ni se trate de rentas acogidas al período de reinversión regulado en la letra b) del apartado 1 del artículo 6 de la susodicha ley. Dicho gravamen tendrá la consideración de cuota del Impuesto sobre Sociedades.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su artículo 15 que los sujetos pasivos cuyo volumen de operaciones hubiere excedido de 10 millones de euros tributarán, cualquiera que sea el lugar en que tengan su domicilio fiscal, a las Diputaciones Forales, a la Administración del Estado o a ambas Administraciones en proporción al volumen de operaciones realizado en cada territorio durante el ejercicio.

Por su parte, el artículo 18 del mencionado Concierto Económico dispone que los sujetos pasivos que deban tributar a ambas Administraciones presentarán ante las mismas, dentro de los plazos y con las formalidades reglamentarias, las declaraciones-liquidaciones procedentes, en las que constarán, en todo caso, la proporción aplicable y las cuotas o devoluciones que resulten ante cada una de las Administraciones.

En consecuencia, la presente orden foral tiene por objeto aprobar los modelos 217 y 237 de autoliquidación de los gravámenes especiales sobre dividendos o participaciones en beneficios distribuidos y sobre beneficios no distribuidos, respectivamente, por las Socimi sometidas a normativa de territorio común, modelos específicos a utilizar en el ámbito foral guipuzcoano para cumplir con las obligaciones anteriormente señaladas.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación de los modelos 217 y 237.

1. Se aprueba el modelo 217 «Gravamen especial sobre dividendos o participaciones en beneficios distribuidos por sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario. Impuesto sobre sociedades. Autoliquidación» (en adelante modelo 217), que se adjunta como anexo I a la presente orden foral.

2. Se aprueba el modelo 237 «Gravamen especial sobre beneficios no distribuidos por sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario. Impuesto sobre sociedades. Autoliquidación» (en adelante modelo 237), que se adjunta como anexo II a la presente orden foral.

Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 217.

1. Están obligadas a presentar el modelo 217 e ingresar el importe correspondiente las entidades que opten por la aplicación del régimen fiscal previsto en la Ley 11/2009, de 26 de octubre, por la que se regulan las sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario, que estando sujetas al impuesto sobre sociedades, deban tributar a la Administración tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en virtud de lo dispuesto en los artículos 15 y 18 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo.

2. No existirá obligación de presentar el modelo 217 en los siguientes supuestos:

a) Cuando el socio que percibe el dividendo sea una entidad a la que resulte de aplicación la Ley 11/2009.

b) Cuando los dividendos o participaciones en beneficios sean percibidos por las entidades no residentes a las que se refiere el artículo 2.1.b) de la Ley 11/2009 respecto de aquellos socios que posean una participación igual o superior al 5 por

gatik gutxienez ehuneko 10eko karga tasaren arabera tributatzen duten bazkideei dagokienez.

3. artikulua. 237 eredia aurkeztera behartuak.

1. 237 eredia aurkeztera eta dagokion zenbatekoa ordaintzera behartuta daude Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuei buruzko urriaren 26ko 11/2009 Legean aurreikusitako zerga araubidea aplikatzea aukeratzeko duten entitateak, baldin eta, sozietateen gaineko zergari lotuta egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Administrazioari tributatu behar badiote maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak 15. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. Banaketarik izan ez duen ekitaldian lortutako mozkinen zatiagatik aurkeztu beharko da 237 eredia, baldin eta zati hori sozietateen gaineko zergaren karga tasa orokorraren arabera tributatu ez duten errentetatik badator eta 11/2009 Legearen 6. artikuluko 1. apartatuaren b) letran araututako berrinbertsio aldiari atxikitako errentak ez badira.

4. artikulua. 217 eta 237 ereduak aurkezteko epeak.

1. 217 eredia aurkeztearen ondorioetarako, karga berezia sortuko da akziodunen Batzar Orokorak edo antzeko organoak mozkinak banatzeko erabakia hartzen duen egunean, eta bi hilabeteko epean autoliquidatu eta ordaindu beharko da, sortzapen datatik zenbatzen hasita.

2. 237 eredia aurkeztearen ondorioetarako, karga berezia sortuko da akziodunen Batzar Orokorak edo antzeko organoak ekitaldiko emaitza aplikatzea erabakitzen duen egunean, eta bi hilabeteko epean autoliquidatu eta ordaindu beharko da, sortzapen datatik zenbatzen hasita.

5. artikulua. 217 eta 237 ereduak aurkezteko modalitateak.

217 eta 237 ereduak «Zergabidea» plataforma erabiliz aurkeztu behar dira, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

«Zergabidea» plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialaren bitartez ere iritsi daiteke bertara, <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna> helbidean sartuta.

6. artikulua. 217 eta 237 ereduaren diru-sarreraren egiteko modua.

217 eta 237 ereduaren autoliquidazioetatik ondorioztatzen diren diru-sarrerak honela egin ahal izango dira: bankuan helbideratuta, ordainketa-pasabidea erabiltuta, edo entitate laguntzailean ordainketa-gutuna aurkeztuta, hori guztia, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, 4. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Xedapen iragankor bakarra. 217 eta 237 ereduak aurkezteko epea, autoliquidatzeko epea foru agindu hau indarrean jarri aurretik hasi den kasuetan.

1. Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatutako dibidenduen edo mozkin partaidetzen gaineko karga berezia autoliquidatzeko epea foru agindu hau indarrean jarri aurretik hasita duten zergadunek foru agindua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo bi hilabeteetan aurkeztu ahal izango dute 217 eredia.

ciento en el capital social de aquellas y tributen por dichos dividendos o participaciones en beneficios, al menos, al tipo de gravamen del 10 por ciento.

Artículo 3. Obligados a presentar el modelo 237.

1. Están obligadas a presentar el modelo 237 e ingresar el importe correspondiente las entidades que opten por la aplicación del régimen fiscal previsto en la Ley 11/2009, de 26 de octubre, por la que se regulan las sociedades anónimas cotizadas de inversión el mercado inmobiliario, que estando sujetas al impuesto sobre sociedades deban tributar a la Administración tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en virtud de lo dispuesto los artículos 15 y 18 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo.

2. Existirá obligación de presentar el modelo 237 por la parte de los beneficios obtenidos en el ejercicio que no sea objeto de distribución, que proceda de rentas que no hayan tributado al tipo general de gravamen del Impuesto sobre Sociedades, ni se trate de rentas acogidas al período de reinversión regulado en la letra b) del apartado 1 del artículo 6 de la Ley 11/2009.

Artículo 4. Plazos de presentación de los modelos 217 y 237.

1. A efectos de la presentación del modelo 217, el gravamen especial se devengará el día del acuerdo de distribución de beneficios por la Junta general de accionistas, u órgano equivalente, y deberá ser objeto de autoliquidación e ingreso en el plazo de dos meses desde la fecha de devengo.

2. A efectos de la presentación del modelo 237, el gravamen especial se devengará el día del acuerdo de aplicación del resultado del ejercicio por la Junta general de accionistas, u órgano equivalente, y deberán ser objeto de autoliquidación e ingreso en el plazo de dos meses desde la fecha de devengo.

Artículo 5. Modalidades de presentación de los modelos 217 y 237.

La presentación de los modelos 217 y 237 se realizará desde la plataforma «Zergabidea», con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

La plataforma «Zergabidea» está disponible en el portal <https://zergabidea.gipuzkoa.eus>. También se puede acceder a la misma a través de la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna>.

Artículo 6. Forma de ingreso de los modelos 217 y 237.

Los ingresos correspondientes a las autoliquidaciones de los modelos 217 y 237 podrán realizarse mediante domiciliación bancaria, pasarela de pagos, o a través de entidad colaboradora mediante la presentación en la misma de la carta de pago, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 de la citada Orden Foral 320/2017.

Disposición transitoria única. Plazo de presentación de los modelos 217 y 237 en los casos en que el plazo de autoliquidación se hubiera iniciado antes de la entrada en vigor de la presente orden foral.

1. Los contribuyentes, cuyo plazo de autoliquidación del gravamen especial sobre dividendos o participaciones en beneficios distribuidos por sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario se hubiera iniciado con anterioridad a la fecha de entrada en vigor de la presente orden foral, podrán presentar el modelo 217 dentro de los dos meses siguientes a la fecha de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

2. Higiezinaren merkaturaren inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatu gabeko mozkinen gaineko karga berezia autoliquidatzeko epea foru agindu hau indarrean jarri aurretik hasita duten zergadunek foru agindua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo bi hilabeteetan aurkeztu ahal izango dute 237 eredua.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

Donostia, 2022ko martxoaren 2a.—Jokin Perora Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(1291)

2. Los contribuyentes, cuyo plazo de autoliquidación del gravamen especial sobre beneficios no distribuidos por sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario se hubiera iniciado con anterioridad a la fecha de entrada en vigor de la presente orden foral, podrán presentar el modelo 237 dentro de los dos meses siguientes a la fecha de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Disposición final única. Entrada en vigor.



La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y será de aplicación para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2021.

San Sebastián, a 2 de marzo de 2022.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perora Lerchundi.

(1291)

I. ERANSKINA

ANEXO I

 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza Departamentua</p>	 <p>Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Hacienda y Finanzas</p>	<p>Gravamen especial SOCIMI HMIS karga berezia</p> <p>Impuesto sobre Sociedades / Sozietate gaineko zerga</p> <table border="1"><tr><td>Ejercicio / Ekitaldia</td><td>Periodo / Zergaldia</td></tr></table>	Ejercicio / Ekitaldia	Periodo / Zergaldia	<p>Modelo 217 Eredua</p>
Ejercicio / Ekitaldia	Periodo / Zergaldia				

Declaración complementaria
Aitorpen osagarria

NIF / IFZ	Razón social / Sozietate izena
-----------	--------------------------------



Liquidación / Likidazioa	Fecha de devengo/ Sortzapen data	01	<input type="text"/>
	Porcentaje del volumen de operaciones en el TH de Gipuzkoa / Gipuzkoako LH-ari dagokien egozpen portzentajea	02	<input type="text"/>
	Cuota a ingresar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa / Gipuzkoako Lurralde Historikoan ordaindu beharreko kuota	03	<input type="text"/>
	Importe ingresado declaración anterior / Aurreko aitorpenean ordaindutako zenbatekoa (exclusivamente en caso de autoliquidación complementaria)/ bakarrik autolikidazio osagarri bada	04	<input type="text"/>
	Líquido a ingresar / Ordaindu beharreko likidoa	05	<input type="text"/>
TOTAL A INGRESAR / ORDAINTZERA GUZTIRA			<input type="text"/>

Domiciliación / Helbideratzea	Código IBAN / IBAN kodea	<input type="text"/>
	<input type="text"/>	

Fecha y número de envío / Data eta bidalketa zenbakia
Sello electrónico de la Hacienda Foral / Foru Ogasunaren zigilu elektronikoa

II. ERANSKINA

ANEXO II

 Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza Departamentua	 Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Hacienda y Finanzas	Gravamen especial sobre beneficios distribuidos por SOCIMI	Modelo		
		HMISak banatutako mozkinen karga berezia	237		
www.gipuzkoa.eus/oqasuna		Impuesto sobre Sociedades / Sozietate gaineko zerga	Eredua		
		<table border="1"><tr><td>Ejercicio / Ekitaldia</td><td>Período / Zergaldia</td></tr></table>	Ejercicio / Ekitaldia	Período / Zergaldia	
Ejercicio / Ekitaldia	Período / Zergaldia				

Declaración complementaria
Aitorpen osagarria

NIF / IFZ	Razón social / Sozietate izena
-----------	--------------------------------

Liquidación / Likidazioa	Fecha de devengo/ Sortzapen data	01	<input type="text"/>
	Porcentaje del volumen de operaciones en el TH de Gipuzkoa / Gipuzkoako LH-ari dagokion egozpen portzentajea	02	<input type="text"/>
	Cuota a ingresar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa / Gipuzkoako Lurralde Historikoan ordaindu beharreko kuota	03	<input type="text"/>
	Importe ingresado declaración anterior / Aurreko aitorpenean ordaindutako zenbatekoa (exclusivamente en caso de autoliquidación complementaria)/ bakarrik autolikidazio osagarri bada)	04	<input type="text"/>
	Líquido a ingresar / Ordaindu beharreko likidoa	05	<input type="text"/>
	TOTAL A INGRESAR / ORDAINTZERA GUZTIRA		

Domiciliación / Helbideratzea	Código IBAN / IBAN kodea	<input type="text"/>
		<input type="text"/>

Fecha y número de envío / Data eta bidalketa zenbakia
Sello electrónico de la Hacienda Foral / Foru Ogasunaren zigilu elektronikoa